

# Bide bihurrietan Gogoeta jauzilariak

**Elena Martinez Rubio**

**Bilduma:** Saiakera

**Formatua:** 14 x 20,50 cm.

**Orrialdeak:** 176

**Koadernaketa:** paperezko azala


**Argitalpen data:** 2025/12/03

**ISBN:** 978-84-9868-927-3

**SALNEURRIA (BEZ gabe):** 15,87 €

**SALNEURRIA (BEZ barne):** 16,50 €

**ANTROPOLOGIA, HISTORIA, FILOSOFIA,  
POLITIKA**



## Sinopsia

*Bide bihurrietan. Gogoeta jauzilariak* hamabi atalek osatutako saiakeran, gai anitzez aritzen da egilea, irakurlea hausnarketaren lurralde urrunetara eraman nahian. Bidaia horretan, idazleari arintasuna dagokio, Italo Calvinok esan zuen bezala. Hau da, saiakerako gogoetek jauzilari izaera dute. Haria hartu, utzi eta berreskeratu egiten dute, testuinguru eta garai desberdinetako beste hari batzuek jorratzen diren gaiei argia egin ahala. Eta gogoetak bihurriak ere badira lerro zuzenari ihes egiten diotelako.

Ildo beretik, Italo Calvinok aztertu zuen beste ezaugarri bat da hemen nagusi: zehaztasuna. Bada, saiakerak egiten dituen jauziek oinarri sendoa dute, nahiz eta ezusteko lekuetara eraman. Ez dira ez hutsalak ez errazkeriaz eginak; aitzitik, begirada zorrotz bati zor zaizkio, zeina filosofia, historia, antropologia, politika, filologia... eta literaturaren arloko adibideez elikatzen baita. Hortaz, adi: ezer ez doa esan gabe, ezer ez da jakintzat ematen. Izan ere, sasi argudioak arriskutsuak dira eta bidea ematen diote bidegabekeriari. Azken batez, nonahi eta noiznahi agerian utzi beharreko zentzugabekeria eta bidegabekeria horiek dira saiakeraren ardatza. Hala bada, irakurleak topo egingo du bertan gaitzetsitako emakume buruargiekin eta erbesteratutako moriskoeekin, besteak beste, eta aukera izango du herritarren heriotzarekiko arrotzeaz, taigako herrien gainbeheraz, Stalinen patriarkalismoaz, nazismoaren hutsaltzeaz, inperioetako gerrek eta kolonialismoak eragindako hondamendiez eta abarrez... hausnarketa sakona egiteko.

Idazlan honek dakarren bibliografia oparoak, bestalde, atek irekitzen dizkio irakurleari, nahi izanez gero, bere jakin-mina asetu arte ikertzen jarrai dezan.

## Egileaz



**ELENA MARTINEZ RUBIO.** Bilbon jaio zen, baina Parisen eman zituen lehen urteak. Unibertsitate arteko ikasketak alemanez egin zituen Bilbon. Filosofia eta Soziologiako lehen zikloa Nürnbergeko Unibertsitatean egin eta gero, Bartzelonako Autonomoan egin zuen Lizentziatura Filosofian, katalanez. Doktoretza tesia, berriz, Javier Sadaba filosofoaren eskutik Madrilgo Autonomoan, Espainiako Estatuan Hannah Arendt pentsalariari buruzko lehenena. Bestalde, EUTGn Euskal Filologia ikasi zuen eta Berlingo Unibertsitatean Literatura. Saiakera hauek argitaratu ditu, besteak beste: *Egun gorrietan. Sigi-sagako gogoetak* (2021), *Bidaia filosofikoak* (2015. Euskadiko Sarietan finalista), *Jactaos vosotros* (2015), *Un pensamiento a la intemperie* (1999). Hiztegi gintzan: *Euskara-alemana hiztegia*. Poesia ere argitaratu du: *Vivíamos a la vuelta de la esquina* (Pasaia Hiriko lehen saria 2010). *Berria*, *Gara*, *Jakin* eta beste hainbat euskal argitalpenetarako artikulgilea, irakaslea eta itzultzailea da.